kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA

# XLIII Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun



Bases 2019

## Al objeto de fomentar la creación y difusión literarias, Kutxa Fundazioa convoca los XLIII Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun, correspondientes al año 2019, de acuerdo con las siguientes bases:

### 01.

El certamen está abierto a la participación de escritores en lenguas vasca o castellana, independientemente de su nacionalidad, procedencia o lugar de residencia, quienes habrán de concurrir con obras rigurosamente originales e inéditas, parcialmente o en su totalidad, no premiadas en otro concurso literario de cualquier naturaleza o lugar, condiciones que deberán mantener hasta el momento del fallo. El autor de la obra garantizará la autoría de la obra presentada al Premio, su exclusiva titularidad sobre los derechos de la misma, así como que no es copia ni modificación de ninguna otra ajena, y que no corresponde a un autor fallecido.

El autor de la obra presentada se obliga a mantener indemne a Kutxa Fundazioa por cuantos daños y/o perjuicios pudiera esta sufrir como consecuencia de la inexactitud o falta de veracidad de cualquiera de las manifestaciones indicadas anteriormente realizadas por el autor en el momento de presentación de la obra y que deberán mantenerse en vigor para la concesión del premio.

A estos Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun, no podrán presentarse quienes sean Jurados de los mismos en la edición objeto de concurso ni, en la misma modalidad, aquellos autores que hayan resultado ganadores en la edición previa a la que se convoca.

### 02.

Los trabajos habrán de presentarse en hojas de formato DIN A4 (210 x 297 mm) mecanografiadas a doble espacio. De cada original se remitirá una copia en papel (impreso por ambas caras y convenientemente encuadernada o cosida) a: “Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2019”, Gureak Marketing. Gurutzegi Bidea 14-18. Pabellón 9. Belartza. 20018 Donostia-San Sebastian (Gipuzkoa) y una copia en formato PDF a literatursariak@kutxa.eus. El plazo de admisión de obras se cerrará el 30 de abril de 2019. La entidad organizadora no se hace responsable de las posibles pérdidas o deterioros de los originales, ni de los retrasos o cualquier otra circunstancia imputable a correos o terceros que pueda afectar a los envíos de las obras participantes en el Premio.

### 03.

Las obras deberán identificarse solamente con su título. Carecerán por tanto de detalles que puedan identificar al autor. En la plica, en sobre cerrado aparte, se incluirá:

1. Fotocopia del Documento Nacional de Identidad
2. Los siguientes datos: nombre, apellidos, dirección, e-mail y teléfono del autor, mencionándose en el exterior del sobre únicamente el título de la obra, además de la especialidad a la que concurre.
3. Será imprescindible y obligatorio adjuntar, asimismo, una declaración firmada aceptando expresamente las bases y condiciones de este Premio, garantizando el carácter inédito, total o parcialmente de la obra, que la misma no se halla pendiente del fallo de ningún otro Premio y que el autor tiene la libre disposición de todos los derechos de explotación sobre la obra en cualquier forma y en sus diferentes modalidades.
4. Documento cumplimentado y firmado de la cláusula informativa de protección de datos personales que estará colgado en la web www.kutxakultur.eus

### 04.

Kutxa Fundazioa designará los Jurados para las distintas especialidades, siendo su fallo inapelable. El hecho de participar en estos Premios Literarios implica la aceptación de sus bases. Todas las incidencias no previstas en estas bases serán resueltas por los respectivos Jurados.

### 05.

La determinación de las obras ganadoras, la apertura de plicas y la proclamación de ganadores, tendrán lugar en Irun, el 14 de septiembre del año 2019, a las 13:00 horas. La fecha de entrega de los premios se anunciará el día del fallo de los mismos.

### 06.

Cualquiera de los premios podrá ser declarado desierto si los trabajos presentados no tuvieran el nivel de calidad requerido. No será considerada por el Jurado correspondiente ninguna obra de la que se tenga noticia que haya sido premiada en otro Concurso en el período comprendido entre el término del plazo de admisión de las obras y la fecha del fallo de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2019.

### 07.

En este sentido, será obligación del autor comunicar por escrito cualquier variación surgida respecto a la obra presentada desde la presentación hasta el plazo fijado en el punto 5, dirigiéndose a: Kutxa Fundazioa – Tabakalera – Plaza de las Cigarreras 1. 20012. Donostia-San Sebastián.

### 08.

Asimismo, ninguna obra seleccionada por el Jurado podrá ser considerada ganadora con carácter definitivo hasta no haberse comprobado el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ello y expresadas en los puntos 1 y 6 de estas bases.

### 09.

Kutxa Fundazioa se reserva, en exclusiva, el derecho de edición de las obras premiadas (directamente o por medio de otra empresa editorial) durante el plazo máximo de seis meses, contados desde el momento del fallo. Transcurrido dicho plazo, los autores dispondrán de sus obras libremente, pero en posteriores ediciones de las mismas deberá consignarse la distinción concedida.

### 10.

Las obras no premiadas así como sus correspondientes plicas, no serán devueltas, siendo destruidas después de la proclamación de ganadores de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2019. No se mantendrá correspondencia con los autores de las obras presentadas, ni se proporcionará información alguna relativa al seguimiento del Premio.

### 11.

Posibles consultas relativas a los Premios y las bases podrán formularse a través de la dirección literatursariak@kutxa.eus.

### 12.

Los datos de carácter personal proporcionados serán utilizados dentro del ámbito del Concurso Literario para ejercer de concursante del mismo. Podrán ser enviados a terceros para realizar servicios de logística asociados al desarrollo del propio concurso.

## Modalidades y premios

### Poesía en euskera

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

**Premio:**
**Trofeo + 15.000€**

### Poesía en castellano

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

**Premio:**
**Trofeo + 15.000€**

### Novela en euskera

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

**Premio:**
**Trofeo + 25.000€**

### Novela en castellano

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

**Premio:**
**Trofeo + 25.000€**

*Premios exentos del I.R.P.F. para residentes en Gipuzkoa.*
*Exención concedida por la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.*

www.kutxakultur.eus

kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA

# XLIII. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak

Oinarriak 2019



## Literaturaren sorkuntza eta hedapena sustatzeko xedearekin, Kutxa Fundazioak 2019. urteari dagokion XLIII. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarietarako deialdia egiten du, honako oinarri hauen arabera:

### 01.

Lehiaketa zabalik dago euskarazko nahiz gaztelaniazko idazleentzat, edozein delarik berorien nazionalitatea, jatorria edota bizilekua; lan zorrotasunez originalak eta lehendik partzialki edo osorik argitaratu gabeak eta inongo literatura-lehiaketatan saririk eskuratu gabeak aurkeztu ahal izango dira; baldintza hauek guztiek indarrean iraun behar dute epaia ematen den unera arte. Lanaren egileak Sariketara aurkezturiko lanaren egiletza ziurtatu behar du, bereak bakarrik direla horren gaineko eskubideak, eta ez dela beste lan baten kopia edo aldaketa, eta ez dela zendutako egile batena ere.

Aurkezturiko lanaren egilea konprometitzen da kalterik gabe mantentzera Kutxa Fundazioa jasan ditzakeen kalteengatik, egileak lana aurkezterakoan egindako eta lehen aipaturiko adierazpenen zehaztasunik edo egiatasunik ezagatik, adierazpen horiek indarrean mantendu behar direlarik saria eman ahal izateko. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sari hauetara ezingo dira aurkeztu lehiaketaren edizio honetan Epaimahaikoak direnak, ezta, modalitate berean ere, deitua den honen aurretiko edizioan irabazle izandakoak ere.

### 02.

Obrak DIN A4 formatuko orritan aurkeztuko dira (210 x 297 mm), tarte bikoitzarekin mekanografiatuak. Lan bakoitzaren kopia bat bidali behar da paperean (bi aldetatik inprimatuta eta egoki koadernaturik edo josita) honako helbidera: "2019ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak", Gureak Marketing. Gurutzegi Bidea 14-18. Pabellón 9. Belartza. 20018 Donostia-San Sebastian (Gipuzkoa), eta kopia bat PDF formatuan hona: literatursariak@kutxa.eus.
Lanak onartzeko epea 2019ko apirilaren 30ean amaituko da. Erakunde antolatzaileak ez du erantzungo jatorrizkoak galtzea edo hondatzea gertatzen bada, ezta ere atzeratzea edo beste edozein zirkunstantzia gertatzen bada, betiere hori posta-bulegoari edo beste hirugarren batzuei egotz dakiekeena bada, nahiz eta Sariketan parte hartzeko lanen bidalketei eragin.

### 03.

Obrak izenburuaz bakarrik identifikatuko dira. Ez dute, beraz, egilea nor den adierazteko moduko xehetasunik izan behar. Eta aparteko kartazal itxi batean sartuko dira honako hauek:
1. Egilearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
2. Ondorengo datuak: egilearen izena, abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa; kartazalaren kanpoaldean, berriz, obraren titulua eta zein modalitatetara aurkezten den adierazido da.
3. Halaber, ezinbestekoa izango da adierazpen sinatua bidaltzea argi eta garbi onartuz Sariketa honen oinarriak eta baldintzak, ziurtatuz osorik edo partzialki argitaratu gabea dela, lana ez dagoela erabaki zain beste Sariketaren batean eta egileak bere esku dituela, aske erabiltzeko moduan, obrari buruzko ustiapen-eskubide guztiak edozein formatan eta modalitate guztietan.
4. Datu pertsonalak babesteko informazio-klausularen agiria, webgunean (www.kutxakultur.eus) zintzilikaturik egongo dena, beterik eta izenpetuta.

### 04.

Kutxa Fundazioak Epaimahai bana izendatuko du sail bakoitzerako, eta horien erabakia apelaezina izango da. Literatura Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarrion erabateko onespena adierazten du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeheraren bat sortzen bada, sailean saileko Epaimahaiak ebatziko du.

### 05.

Lan irabazleak erabakitzea, plikak irekitzea eta saridunen aldarrikatzea Irunen egingo da, 2019ko irailaren 14an, 13:00etan. Sariak emateko eguna erabakiaren berri ematen den egun berean jakinaraziko da.

### 06.

Sarietako edozein gera daiteke eman gabe, aurkeztutako lanek behar bezainbateko kalitatemailarik ez baldin badute. Epaimahaiek ez dute aintzat hartuko 2019ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarietara obrak aurkezteko epemugatik epai-egunera bitartean beste Lehiaketaren batean saritua izan den obrarik, horren berri jakinez gero.

### 07.

Horrela, bada, egilearen betebeharra izango da aurkeztutako obraren inguruan eta 5. oinarrian adierazitako epealdiaren barruan gerta daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, idatziz, helbide honetara zuzenduta: Kutxa Fundazioa – Tabakalera – Andre Zigarrogileak plaza, 1. 20012. Donostia.

### 08.

Berebat, Epaimahaiak hautatutako ezein lan ez da behin betiko irabazletzat aldarrikatuko harik eta oinarri hauetako 1. eta 6. puntuetan aditzera emandako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu arte.

### 09.

Kutxa Fundazioak beretzat gordetzen du, esklusiban, epai-egunetik aurrera kontatzen hasi eta gehienez ere sei hilabeteko epearen barruan, lan sarituak argitaratzeko eskubidea (zuzenean edo beste argitaletxe baten eskutik). Aipaturiko epealdi hori igaro ondoren, egileek askatasun osoz erabili ahal izango dituzte beren lanak, baina, obra horien hurrengo argitalpenetan, irabazitako sariaren aipamen zehatza jaso beharko da.

### 10.

Saritu gabeko lanak eta hauei dagozkien plikak ez dira itzuliko, desegin baizik, 2019ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarien irabazleen aldarrikapena egin ostean. Aurkeztutako lanen egileekin ez da korrespondentziarik izango, eta ez da inolako informaziorik emango Sariketaren jarraipenari buruz.

### 11.

Sariei eta oinarriei buruzko kontsultak helbide honen bidez egin daitezke: literatursariak@kutxa.eus.

### 12.

Emandako datu pertsonalak Literatura Lehiaketaren esparruan erabiliko dira bertan lehiakide gisa jarduteko. Hirugarrenei bidali ahal izango zaizkie Lehiaketaren garapenarekin lotutako logistika-zerbitzuak gauzatzeko.

# Modalitateak eta sariak

### Euskarazko olerkia

Gutxieneko 800 bertsoko luzerako zeinahi errima, neurri eta gairi buruzko olerkientzat.

**Saria:**
**Garaikurra + 15.000€**

### Gaztelaniazko olerkia

Gutxieneko 800 bertsoko luzerako zeinahi errima, neurri eta gairi buruzko olerkientzat.

**Saria:**
**Garaikurra + 15.000€**

### Euskarazko eleberria

Gutxieneko 150 folioko gai eta idazkera libreko narrazioentzat.

**Saria:**
**Garaikurra + 25.000€**

### Gaztelaniazko eleberria

Gutxieneko 150 folioko gai eta idazkera libreko narrazioentzat.

**Saria:**
**Garaikurra + 25.000€**

*Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako salbuespenari esker, Gipuzkoako egoiliarrentzat sari hauek ez daude P.F.E.Z. zergari atxikita.*

www.kutxakultur.eus